

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko Kataluniako eta Ekialdeko Pirinioetako adituek Nafarroa bisitatu dute Ederbidea proiektua ezagutzeko

Bizikletaz ibiltzeko ibilbideak garatu eta mugikortasun nahiz turismo iraunkorra sustatzea xede duten POCTEFA proiektuen arteko lankidetzara eta esperientzia-trukerako topaketa eredugarria izan da

Asteazkena, 2019.eko otsailak 6

Alt Empordan eta Ekialdeko Pirinioetan bizikletaz ibiltzeko mugaz gaindiko bideen nahiz lotura multimodalen garapenean diharduen Bicitranscat proiektuaren zenbait ordezkariak lan bisita egin dute Ederbidea proiektura, Nafarroak, Gipuzkoak eta Pirinio Atlantikoek osatutako Euroeskualdeko lurraldean bizikleta bidezko joan-etorriak sustatzeko egiten ari diren ekintzak bertatik bertara ezagutzeko xedez.



Bicitranscat eta Ederbidearen ordezkariak, bizikletaz ibiltzeko tarte baterako bisitan.

Mugaz gaindiko mugikortasun iraunkorra sustatzea da INTERREG POCTEFA programari atxikitako bi proiektu horien helburua, eta topaketa honen bitartez, ezaguerak eta esperientziak partekatu eta lankidetzaren garrantziaz ohartarazi nahi izan dute.

Donezteben egin da Ederbidea eta Bicitranscat proiektuen ordezkarien arteko lan eta lankidetzarako topaketa. Malerrekako Mankomunitatearen egoitzan antolatutako jardunaldiaren ondoren, Ederbideak Nafarroan dituen bizikletaz ibiltzeko zenbait bide-tarte bisitatu dituzte Bidasoako eta Plazaolako Bide Berdeak batuko dituen ibilbidean.

Topaketan, Ederbidea proiektuko erakunde bazkideek esperientziak partekatu dituzte Bicitranscat proiektuaren ordezkariekin, alderdi praktikoei erreparatuz eta bizikleta bidezko mugikortasun eta turismoaren aldeko ekimen hau hiri ikuspegitik zein landa ikuspegitik toki mailan garatzeko modua aztertuz.

Jardunaldiaren ondorioetan argi geratu da Ederbidea bezalako proiektuek landa garapen iraunkorra errazten dutela, zuzenean nahiz zeharka, izan ere, lurraldeetan ekimen berriak sortzera animatzen dituzte, ekonomia zirkularra bultzatuz eta toki erakundeak zein enpresak eta kolektiboak mobilizatuz.

Nafarroako Gobernuako Marketin Turistikoaren Zerbitzuko teknikari Patxi Saenz Lazkanok Foru Komunitatean egiten ari diren ekintzak aurkeztu ditu.

Ekitaldian parte hartu dute, halaber, Baztan-Bidasoa Turismoko lehendakari Patxiku Irisarrik, Cederna Garalur tokiko ekintza taldeko zuzendari kudeatzaile Ibon Mimentzak, Plazaola Turismo Partzuergoko kudeatzaile Gustavo Ortiz de Barronek eta Imozko alkate Joxean Iturraldek. Gainera, Aloa Comunicación enpresako Berta Bernartek, Ederbidearen esperientziaren bitartez, han-hemenkako ekintzak nahiz POCTEFA mugaz gaindiko proiektuei atxikitako lankidetzak, iraunkortasun eta genero-ikuspegiko balioak ezagutzera emateak duen garrantzia nabarmendu du.

Jardunaldia Doneztebeko alkate Xanti Utergak itxi du, Ederbidea “Nafarroaren iparralde osorako arras positiboa izanen den etorkizuneko proiektua” dela adieraziz. Horren harira, mugaz gaindiko proiektu honek herria garatzen lagun dezakeela ziurtatu du, “masifikaziorik gabeko turismo lasaia” sustatuz, herritarren artean bizikletaren erabilera bultzatuz eta eskualdean barna proiektu osagarriak egitera animatuz.

Ederbidea mugaz gaindiko proiektuari atxikita, Bicitranscaten ordezkariak Irun eta Hendaia bisitatu eta lan-bilerak batean parte hartu dute Bidasoa Aktiboaren egoitzan.

Proiektuen arteko lankidetzak

Ederbidea deritzon Europako lankidetzak-proiektuan, Nafarroa, Gipuzkoa eta Pirinio Atlantikoetako mugaz gaindiko lurraldeetako 12 bazkideek indarrak batzen dituzte bizikletaren erabilera sustatzeko.

Hauexek dira Ederbidea proiektuko bazkideak: Pirinio Atlantikoetako Departamentua proiektuaren buru gisa, Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Imotz, Biarriz, Donibane Lohizune, Hendaia eta Irungo Udalak, Euskal Herri-Aturriko Mugikortasun Sindikatua, Baztan Bidasoa Turismo Elkargoa, Cederna Garalur elkarteak eta Plazaolako Turismo Partzuergoa.

Ederbidearen garapenerako, proiektuak, Pirinioetako Lan Komunitateak kudeaturiko INTERREG POCTEFA programa europarraren laguntza izan du. Europar Batasunaren % 65eko kofinantzazioa lortu du, Europako Eskualde Garapenerako Funtsaren (FEDER) bitartez.

Alt Emporda eta Ekialdeko Pirinioetako eremuetan mugikortasun iraunkorra sustatzen lagunduko duten bizikletaz ibiltzeko mugaz gaindiko bideak nahiz lotura multimodalak garatzea da Bicitranscat proiektuaren helburua.

Proiektu horren izenean, Nafarroan izan dira bisitari Muriel Llugany, Ekialdeko Pirinioetako Departamentuaren Kontseilukoa; Laia Cormenzana, Gironako Bide Berdeen Partzuergokoa; Olga Sabater eta Roser Pastor, Alt Empordako Eskualdeko Kontseilukoa, eta Martine Not eta Florence Danhyer, Perpignan Mediterraneoko Hiri Komunitatekoa. Bertan izan dira, halaber, Isabelle Guy, Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren Kontseilukoa, Nafarroa ere partaide duen Atlantic On Bike proiektuaren buru gisa, eta Sabine Etcheverry, Pirinio Atlantikoetako Departamentukoa, Ederbidea proiektuaren arduraduna.